



Iñistorra euskaltzaileen biltzarrak aurtengo Sanmieletan Urnietako kirolaria omenduko du

2016ko irailaren 1a, 491 zenbakia XI. urtea Andoainen eta Urnietan doan banatzen da

JOKIN LIZEAGA, URNIETAR PRESTU

Maratoia eta maratoi erdia Leitzaran-Plazaola naturbidean

Irailaren 11n, lehen aldiz, Gipuzkoa eta Nafarroa lotzen dituen naturbideetan barrena maratoia antolatuko dute.

42 kilometroko lasterketa Lekunberrin abiatu eta Andoainen amaituko da. 26 kilometroko lasterketa, berriz, Leitzaran hasi eta Andoainen amaituko da. Proba luzeetan trebatu nahi duten lasterkariek, beraz, etxetik gertu lasterketa interesgarriaz gozatzeko aukera izango dute. Inguru ederrean, gainera. Jarduera berria izango dela ere esan daiteke, ez baita mendi lasterketa izango. Aurkakoa, ibilbideak itsasorako norabidea duenez korrikalariek maldan behera korrika egingo dute.



Behemendiko, Plazaola Partzuergoko eta Andoaingo Udal ordezkariak Unanibia zubian egin zuten lasterketaren aurkezpena.

Probaren antolatzailea Diversport enpresa da, lasterketa bertaria Castellonen, Gironan, Madrilan eta Tarragonan antolatzen dituen "Maraton Vías Verdes" zikloaren baitan.

Izena emateko aukera zabalik da internet bidez, maratonvias-verdes.com webgunean. Irailaren 1etik aurrera parte hartzearen kostua, probaren arabera, 29 euro eta 52 euro izango dira.

LASTERKETA EGUNA IRAILAK 11, IGANDEA

07:30	Bus irteera	Andoain
09:00	Lasterketa	Lekunberri
12:30	Sariketa	Andoain
15:00	Itxiera	Andoain

Sorabillako jaiak, hurrengo asteburuan

Auzuneko jaiak uda amaierarekin eta ikasturte hasierarekin bat egien dute.

Tradizio bihurtu diren ohiko ekitaldiez gain, irailaren 8tik 11ra azpimarratzeko modukoak dira hainbat ekitaldi: Karmele Muro sopranoak eta Joxean Paskual organo joleak eskai-

niko duten kontzertua, larunbat arratsaldetik hasitako ospakizun sorta (Patata Tropikala taldearen haur antzerkia, Batukada feminista eta 80ko pop-rock musikaz kontzertua osatzen duen El Ritmo del Desvan taldea). Igandean, berriz, futboleko lehen mailako arbitro izandako Miguel Angel Perez auzotarra omenduko dute.

[GEHIGARRI BEREZIA]



Irailaren 8an hasi eta 11ra bitarte egitarau oparoa antolatu dute Sorabillan.

Andoaingo igerilekua, zabaltzear

Udan eraberritze lan handiak egin eta gero, Allurraldeko igerilekua irailaren 12an ireki nahi dute.

[KIROLA, 7. ORRIALDEA]

HERNANIKO UDAL EUSKALTEGIA

2016 - 2017 ikasturtea

**Matrikula irekita
irailaren 5etik 23ra arte**

- Maila guztiak: aurrez aurre eta autoikaskuntza
- Moduluak: astean 10, 6 eta 5 ordu
- Eta azterketak:
HABE, PERFILAK, EGA...

Karobieta auzoa, 63 (anbulatorio zaharra) Tel.: 943 33 18 96
euskaltegi@hernani.eus - Bulego ordutegia: 09:30-13:30 / 16:30-19:30

*Gurekin
ahal duzu*



UZTAILEKO ETA ABUZTUKO ALBISTEAK WEBGUNEAREN BITARTEZ ZABALDU DIRA

Aiurri.eus udako albistegia

Uztaileko bigarren hamabostaldian eta abuztu osoan Aiurri.eus webgunea martxan izan da, eskualdeko albisteen berri emateko prest. Uda Andoainen festaz festa igarotzen da, eta horixe izan da

gehien landutako informazioa. Era berean, tartea egin zaio egunez egun sortutako informazioari. Zorionez, aurtengoan ez da ezusteko larririk izan.

Uztailaren erdialdean eta abuztuaren erdialdean bero kolpe handi samarrak izan dira. Lehenengoa uztailaren 18an eta 19an izan zen, eta egun horietan joateko aukera egin zuen herritar askok. **Urnieta**-ko igerilekura edota Andoaingo **Leitzar**an bailarara freskotasan bila joandako herritarrak. Otieta parkea ibilgailuz bete zen egun horietan eta, hori ikusita, uztailaren 23an hasita Udalak Hiribus zerbitzua Otietaraino zabaltzea erabaki zuen. Jai egun eta astebururo martxan izan da, egunero sei bidaia eginez.

Errekara hurbildutako horietako askotxo freskagarrien bila gerturatu ziren Leizaran Bisitarien Etxera, zeina ekimen betean izan da turistei naturari lotutako zerbitzuak eskainiz edota jarduerak antolatuz. Haurrentzako jolasak, korrikalariarentzako Trail running saioak, heriotzarik gabeko arrantza ikastaroak eta berriki zakurraren eguna antolatu dituzte udan zehar.

Uztailean bertan **Behemendiko**, **Plaza-**



Uztailaren 30ean Etenetan omenaldia egin zioten Katto Amilibiari, haren heriotzaren laugarren urteurrenean.

ola partzuergoko eta Andoaingo Udaleko ordezkariak datorren irailaren 11n egingo den **Leitzarango maratoi**aren aurkezpen ekitaldia egin zuten. Estraine-

koz, Plazaola-Leitzar natubidean bi ibilbide ezberdinez gozatzeko aukera izango da. Bata maratoia eta bestea maratoi erdia.

Jaia izan da udako jai nagusietakoa. Andoaingo auzoetako hainbat argazki-bilduma eta bideo ikusgai daude aiurri.eus webgunean.

Uztailean, **Gabon Txirrita** antzezlanaren aurkezpena egin zuten Donostian, hilabete luzez Saroben lantzen ari direna, Gipuzkoako gizarte osora zabaltzeko asmoz. Harrera ezin hobea izan du antzezlanak, airean agortu baitziren Donostiako estreinaldirako sarrerak. Egundorietan, **Urnieta**ko Udalak eta **Donostia 2016**ak hitzarmena sinatu zuten, eta horren berri Aiurri.eus webgunearen bitartez eman genuen.

Gure artean ez daudenak gogoan hartzeko aukera izan da uda honetan. Urnieta eta andoaindar askoren bihotzean dagoen **Etenetan** omenaldia egin zioten **Katto Amilibiari**, haren heriotzaren laugarren urteurrenean. Oinez edo bizikleta gainean hurbildu ziren haren lagunak, oraindik ere gogoan dutela adieraziz. Bideoan bildu genuen omenaldi ekitaldia.



HITZORDU GARRANTZITSUAK URNIETAKO JAIEN AURRETIK

Sanmielen atarikoak

Iraila ekitaldiz beterik dator, urnietarren gozamenerako. Miela iristear da, eta iritsiera luzeegia izan ez dadin, azken urteetan jaien atariko bat baino gehiago egiten da. Bertso afaria dagoeneko ohiko

bilakatzen ari da. Aurtengoan, ordea, bertso afariaz gain Egape ikastolak antolatutako Kantu kalejira, Gabon Txirrita antzezlan edota 400 istorio ikuskizuna ezinbesteko hitzordu bihurtu dira.



Kantujira

Irailak 17, larunbata

■ Egape ikastola. 12:00.

Egape ikastolaren 50. urteurreneko lehen ekitaldietakoa izango da, zeinean, kantu bidez gogoan hartuko dituzten Xabier Lete eta Lourdes Iriondo. Haien izena daraman plaka ipiniko dute, egun berean.



Gabon Txirrita

Irailak 23, ostirala

■ Kiroldegia. 22:00.

Hilabete luzez Saroben landutako antzezlan herrikideen aurrean aurkezteko aukera izango da. X. Lete gogoan, Txirritari buruz idatzi eta zuzendu zuen antzezlan biziberrituko dute. Kalitatezko ikuskizuna landu dute.



400 istorio

Irailak 24, larunbata

■ Kiroldegia. 20:00.

Urnietan antzerkigintzarako eta musikagintzarako tradizioa oso errotuta dago. *Marizulo*, *Urnieta'59* eta *1936* antzezlanak oinarritzat hartuta, jaien atarian dantza eta musika emanaldi berezia aurkeztuko dute.



Bertso afaria

Irailak 24, larunbata

■ Oianume. 21:30.

Bertsolarien artean izena hartzen ari da Oihana Iguaran. Oskar Estanga bertsolari nafarrarekin batera bertso musikatuak eskainiko dituzte. Jaien atarian bertso afaria egiteko ohitura errotzen ari da Urnietan.

Iñistor jaia, hamargarrenez

Urriaren 2an euskaltzaleek hitzordua izango dute Jakutegi plazan, Iñistor jaietan. Egun osoko ospakizuna da, hainbat jarduera antolatzen baitira. Hala nola, toka txapelketa, herri bazkaria, bertso saioa

edota Euskal Herri mailako irrintzi lehiaketa. Iñistorra euskaltzaileen biltzarra 2007an hasi zen jai antolatzen, eta 2008az geroztik Urnietar Prestu saria banatzen du.



2016 • Urnietar Prestu
Jokin Lizeaga



2015 • Urnietar Prestu
Juxto Egaña



2014 • Urnietar Prestu
Edu Muruamendiaraz



2013 • Urnietar Prestu
Iñaki Aranzadi



2012 • Urnietar Prestu
Martin Lizeaga, Juan Iguaran

Urnietan herrian eta herriaren alde egindako lanagatik, herri-tar bat edota herritar talde bat omentzen du Iñistorra elkarteak. Aurtengoan Jokin Lizeaga korrikalaria omentzea erabaki dute. Lasterkari ezaguna eta maila handikoa, neurri handi batean hari esker ari da gertatzen mendi lasterketen loraldia Urnietan, eskualdean eta Gipuzkoan osoan.




2011 • Urnietar Prestu
Emakume baserritarrak



2010 • Urnietar Prestu
Juan Gorostidi



2009 • Urnietar Prestu
Praxku Belauntzaran



2008 • Urnietar Prestu
Martxeli Gorriti

Sanmielak 2016 URNIETA

Urriak 2

X. Iñistor jaia

Jakutegi plazan

12:30 X. Maldan-gorako Iñistorra Toka Txapelketa, San Juan plazan.

14:30 Herri bazkaria.

16:30 Bertsolariak.

Uxue Alberdi (Getaria), Miren Amuriza (Berriz), Unai Muñoa (Lasarte-Oria) eta Ander Lizarralde (Oiartzun). Gai jartzailea: Amaia Agirre (Villabona).

17:30 "Urnietar Prestu" 2016 izendapena. Jokin Lizeaga korrikalaria izango da omendua.

19:00 VIII. Maria Arizmendi irrintzi lehiaketa, San Juan plazan.

Helduentzako menua (25 euro)

- Errusiar entsaladilla.
- Itsas-kabra.
- Karrillerak.
- Hojaldrea.
- Kafea.
- Belar txupittoa, whisky edo patxarana.

Haurrentzako menua (16 euro)

- Makarroiak tomatea eta urdaiazpikoarekin.
- Eskalopea txip patatekin.
- Sandwitx izozkia.

Bazkarirako txartelak aurrez erostea ezinbestekoa da. Azken eguna: Irailaren 28a.

Jadanik salgai daude ondorengo lekuetan:

URNIETAN

- KANTOI tabernan (San Juan plazan).
- GURIA tabernan (Idiazabal kalea).
- BIKAIN kafetegia (San Juan plaza).

Antolatzaile:
Iñistorra Euskaltzaleen Biltzarra,
Manuel Larramendi Kultur Bazkonekoa.

Laguntzaile:
Txanbolin txistulari banda,
Egape Dantza Taldea.

Babesle:
Urnietako Udala, Aiurri astekaria.

Herri eta auzoetako jaiak bizirik



2016, iraila | GEHIGARRI BEREZIA



Andazarrate Gaina • Tel. 943 69 45 16 • 666 44 85 21 • ASTEASU

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

IZURTZU

ERRETEGIÀ

- Eguneko menua
- Karta
- Asteazkenetan itxita
- Erreserbak egitea komeni da
- Berezitasuna: Asteburutan babarrunak eta baserriko oilaskoa
- Etxeko postreak

“Gogo handiz hartzen da lehen gaua”

JOSU ARRUABARRENA ETA JON ORMAETXEA, IKUSIKOK KOADRILAKO KIDEAK DIRA. ZIZURKILDARRAK BIAK, NAHIZ ETA AZKEN URTEOTAN AZKOITIAN ETA TOLOSAN BIZI. HERRIKO FESTETARAKO GOGOTSU ETORRIKO DIRA JAIOTERRIRA.

Lehen egunetik hasiko al zarete parte hartzen? Aurten ere kros mistoan ateratzeko asmorik?

Jon: Azken momentuan erabakitzen dugu beti eta aurten ere hala izango da. Lanak uzten badigu, hortxe izango gara.

Urte ugarian hartu izan duzue parte elkarrekin, lasterketaren amaierako erratza eskuetan hartuta...

Josu: Hiru txandatan atera izan gara elkarrekin. Parte hartu genuen lehen urtean bikotea bilatzen saiatu ginen eta aurkitu ez genuenez, biok elkarrekin lasterketaren amaieran mozorrotuta ateratzea erabaki genuen. Geroztik akordio modukoa egin genuen; aurretiaz, korrikarako bikotea aurkitu gatik, elkarrekin aterako ginela.

Jon: Aitona eta amonaz jantzita hartu genuen parte behin, rugby jokalariz eta animatzailez beste behin eta baita apai-za eta mojaz ere.

Zein ezaugarri du Zizurkilgo kros mistoak?

Jon: Gu herriko jendea animatzearen eta umore pixka bat jartzearen atera ginen lehenengoz lasterketa ixten, eta gerora ere hala jarraitu genuen. Herriko jendea baino, korrika ibilita dagoen jendea etortzen da gehiago kros misto-ara. Nik herritarrek korrika ateratzera animatuko nituzke.

Josu: Aizpurua etxearen paretik atera eta lau itzuli ematen zaizkio ibilbideari. Guztira bost kilometroko bidea da.

Herri afaria asteazkenean, herri bazkaria larunbatean. Ez duzue hutsik egingo...

Jon: Larunbaterako asteazkenean baino kide gehiago osatuko gara. Herri afaria asteen zehar eta oporretatik bueltan, lanean hasi berri izanda, zailagoa izaten baita; baina ahal dugun guztiok gerturatuko gara afarira ere.

Josu: Hurrengo egunean lana izan arren, jende asko etortzen da afaltzera. Egoera horretan daudenetatik batzuk afalondan etxera joaten dira eta beste batzuk nahi baino gehiago luzatzen di-



Josu Arruabarrena eta Jon Ormaetxea, Zizurkilgo plazan.

ra. Gogo handiz hartzen da lehen gaua eta oso giro ona sortzen da. Presarik gabe etorri gero, herriko jendea biltzen den gau bakarra denez, aspaldian ikusi gabeko herritarrekin elkartzeko aproposa izaten da.

Jon: Gaurik politena da niretzat. Koadrila ezberdineko kideak elkartzeko ibiltzen gara batean eta bestean. Larunbatean, berriz, koadriletan banatuago.

Zein aurreikuspen duzue koadrilen egunari begira?

Josu: Koadrila bakoitzak arduraren bat izaten du festetan eta bazkariako mahaiak deskargatu eta antolatzea egokituko zaigu guri, astolana egitea.

Jon: Herri afarian ez bezala, bazkariako koadrila bakoitzak etxetik ekartzen du jatekoa. Urteren batzuetan parrilla ekarri eta bertan prestatu izan dute batzuek. Bazkalondan, bingo jokaldia izango da aurten ere. Iaz egin zen lehenengo aldiz eta primerako giroa sortu zen. Mozorrotutako bi aurkezlek gidatu zuten saioa eta nahikoa saltsa izan zen.

Mozorro gauean mozorrotuta ateratzen zarete kalera...

Josu: Bai, badugu ohitura. Arratsaldean baino gauean mozorrotzen gara gu, afalostean. Jokoa ematen duten mozorroak aukeratzeko ditugu, gure artean ondo pasatzeko: dominoko piezez mozorrotu ginen urte batean eta bata bestearen kontra saltoka ibili ginen. Bolo jokoa irudikatu genuen beste behin, pilota handi batekin. Hondartzako bole jokalariz ere jantzi ginen...

Zein beste ekintzatan hartuko duzue parte?

Jon: Besteak beste, beti joaten gara bertso saiora.

Josu: Kontzertuetara ere bai. Jende asko biltzen da urtero, baita kanpoko herrietatik etorritakoak ere.

Zizurkilgo festetan nabarmenduko zenuketen hitzordua?

Jon: Guk parte hartu ez arren, danborrada, esaterako. Jende asko biltzeaz gain, aurrez ere giro polita sortzen du entseguetan. Erraldoi eta buruhandien konpartsak ere indarra hartu du azken urteotan.

“Herriko jendea animatzearen eta umore pixka bat jartzearen atera ginen lehenengoz lasterketa ixten”

MOTZEAN

Eguna ala gaua nahiago?

Jon: Gaua.
Josu: Eguna.

Festetako egun kuttuna?

Jon / Josu: Lehen eguna.

Jateko?

Jon / Josu: Koadrilen eguneko paella. Urte-tako ohitura dugu eta kanpoan eskatzen dugu, gure artean beste zerbaitekin prestatu gendake bestela.

Edateko?

Jon: Sagardoa.
Josu: Garagardoa.

Dantzazaleak al zarete?

Jon: Dantzazaleak baino parrandazaleak gara gu.
Josu: Ordu batetik aurrera suertatzen da dantza egitea ere. Edozein erriemotara egokitzen gara orduan.

Herritarrei mezurik?

Jon: Parte har dezatela, kros mistoan bereziki.
Josu: Aprobetxa dezatela. Egundorietan ahar daitezela gainerako guztiarekin eta har dezatela ekintzetan parte.



Aitona eta amonaz jantzita, 2011ko kros mistoan.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



www.erroitz.net

Hedabideak sortu,
garatu eta kudeatu.

Diseinu eta
banaketa lanak

Plaza Etxeberri
JATETXEA
Pedro Mari Otaño Plaza
943 69 19 36
Zizurkil

astelehenetik larunbatera...

eguneko menua

Jan etxean bezala

egunero zuretzako goxo-goxo sukaldatua

www.plazaetxeberrien.eus en gaituztu



Udari agur esateko ozpakizun sorta



Muyayo Rif taldea zuzenean arituko da, Esne Beltzaren aurretik.



Esne Beltzak jendetza erakarriko du, eskualde osotik.



Irrien lagunak taldeak "Kanta eta dantza" ikuskizuna eskainiko du.

Irailak 6, asteartea

19:00 IX. Kros mistoa, bikoteka.
20:00 Barrikotea.

Irailak 7, asteazkena

Jaien hasiera

19:00 Danborrada herrikoa "Jun da Jo" txarangarekin.
19:15 Haurrentzat kantu jolasak, mozo-
rroturik. Mozorro gaia: Itsasoa.
20:00 Txupinazoa eta Melokotoiaren
aurkezpena. Txupinazoa bota au-
rretik, Zizurkil Goiko jai batzor-
deak omenaldia jasoko du. On-
doren, buruhandiak.
20:20 Danborrada.
21:30 Herri afaria. Afalostean, txaran-
ga.
02:00 Karaokea.

Irailak 8, osteguna

Gazte eguna

10:30 Jokulandia goiz osoan zehar.

14:00 Gazte bazkaria. Ondoren, Elek-
tro txuflarekin kalejira.
17:30 Dantza saio gidatua, Aurrera pla-
zan. Ondoren, txokolate jatea eta
buruhandiak Joxe Arregi plazan
23:00 Suzko zezena.
23:30 Muyayo Rif eta Esne Beltza zuze-
nean.

Irailak 9, ostirala

11:00 Haur karaokea eta Wii dantza.
12:00 Meza Nagusia.
13:00 Jubilatuen jokoak.
14:00 Jubilatuen bazkaria plazan. Baz-
kalostean dantzaldia Aurelio Sa-
ez "Yerri"ren eskutik.
17:30 Irrien lagunak, "Kanta eta dan-
tza" ikuskizuna Aurrera plazan.
22:00 Bertsoak: Andoni Egaña, Maialen
Lujanbio, Amaia Agirre, Oihana
Iguaran eta Unai Mendizabal.
Gai-jartzailea: Igotz Alkorta.
23:30 Trakets zuzenean.

Irailak 10, larunbata

Mozorro eguna

11:00 Sorginaren bila.
14:00 Herri bazkaria. Ondoren, postre
lehiaketa eta bingoa.
18:30 Astakiloen showa.
20:00-21:30 Laket zuzenean.
23:30 Laket zuzenean. Jarraian, mozo-
rro lehiaketa. Ondoren DJ Bull.
08:00 Diana.

Irailak 11, igandea

11:00 Sardina eta sagardo dastaketa.
13:00 Haurren euskal dantza ikuskizu-
na.
16:00 Mus txapelketa.
16:30 Erraldoi eta buruhandien kon-
partsa, dantza herrikoiarekin.
19:30 Hodei magoa.
Ogitarteko afaria.
22:00 Bi Bala bertso musikatua.
23:30 Melokotoi sariak. Jarraian, melo-
kotoiaren hileta eta lur-ematea.

Elbarrenako jaietako oharrak

Jaietako zapia

Jai batzordeak festazaleen artean za-
pia erabiltzeko ohitura txertatu nahi
du. Jaien aurretik hasita, zapiak sal-
gai egongo dira herriko tabernetan.

Kantuan eta mozorrotuta

Irailaren 7an kantu jolasean parte
hartzeko mozorrotuta joateko deia
egin diete haurrei. Oporretan Euska-
razekoek antolatu dute, eta deialdira
haur guztiak gonbidatuta daude.

Sorginaren bila haur jolasa

Irailaren 10eko jolasean parte hartze-
ko haurrek etxetik beltzez jantzita
agertu beharko dute.

Ogitarteko afaria

Azken urteetan bezala, azken egune-
an bakoitzak bere ogitartekoa era-
manda afaria egingo da plazan.

OGI ZURI

OGI GOXO

OKINDEGIA, S.L. Lizarra-etxea, 32. Elizmendi auzoa ASTEASU ☎ 943 691 896
OGI-ZURI Bulandegi bidea, 1-3 ZIZURKIL ☎ 943 691 000
OGI-GOXO Kale Nagusia, 26 AMASA-VILLABONA ☎ 943 693 294

FESTAK ONDO IGARO!

Ogi berezi eta artesanak - Etxerainoko zerbitzua

**BASERRIKO HARAGIA
URDAITEGI BEREZIA**

Jaietan ere on egin!

Bulandegi bidea,1. Zizurkil. 943 696 242

Ondo pasa festetan!

Ernio bidea - 7 F. Zizurkil - 943 696 257

Talleres ARRASTOA^{s.l.}

Ondo igaro jaiak!

**Mandrinatzeko eta
fresatzeko makina-lanak**

Ernio bidea, 25 - Poligonoa. 35. Pabilioia / 61 P.K. Zizurkil
Tel.: 943 694 441 - Faxes: 943 694 102 - julian@arrastoa.eus

Giroa eta gogoa, Zizurkilen goi-goian

BERNARDO ARREGIK JAURTITAKO TXUPINAZOAK HASIERA EMAN ZION BOST EGUNeko JAI EGITARAU OPAROARI. ABUZTUAREN HAMAZAZPIKO GOIZALDERA ARTE GIRO EDERREAN MURGILDUTA IBILI ZIREN ZIZURKILDARRAK.

Oilasko biltzaileak izan ziren, azken urteotan bezala, jai giroan murgiltzen lehenak. Abuztuaren 12an, goizeko 06:30etan ekin zioten bideari. Etxez etxe eta baserri baserri, trikiti doinuak herrian barrena zabalduz eta eskaintzen zizkieten jan-edanez gozatu zuten eguna. Herriko haurrek ere, txupinazoa bota aurretik gozatu zuten jai egitarauko lehen ekitaldiaz. San Millan eskolako hormetako bat apainduko duen mural koloretsua margotu zuten denen artean, Izaro Lizarragaren gidaritzapean.

ETXABURUA ETA ARREGI JAIEEN HASIERAKO PROTAGONISTAK

Eguerdiko 14:00ak paseak zirela, oilasko biltzaileak plazara inguratu zirenean igo zen **Bernardo Arregi** Iriarte etxe bakoira. Jaiez gozatzeko deialdia lau haizetara zabaldu ondoren jaurti zuen txupinazoa. Soka dantza eskaini zuten ondoren herriko gazteek. **Alatzne Etxaburua** herri kirolariak merezitako omenaldia jaso zuen eta Bernardo Arregiri ere eskaini zioten agurra. Arratsaldean, Eriz magoaren emanaldi umoretsua izan zen protagonista eta gauean, herri-ugari bildu zen herri afarian. Zesuma dantza taldearen doinuekin, goizaldera arte luzatu zuten jai askok eta askok.

Umeen eguna izan zen jaietako bigarrena. Krosa, buruhandiak, jolasak, bazkaria, puzgarriak..., ederki gozatzeko aukera izan zuten haur eta gaztetxoek. Gauean musikarekin luzatu zen festa, goizaldera arte.

Zimiterioko pilota txapelketako finalerako partidak ere jendetza bildu zuen.



Jaiaren hasieran, haur eta gazteen laguntzarekin murala margotu zuten.

Iñigo Irisarri adunarrak eta **Eneko Maiz** billabonatarak osatutako bikotea izan zen aurtengo edizioko garailea.

BERTSO SAIOAN MENDIZABALEN OMENALDIA PANTXIKANERI

Amabirjin egunean, herritarren arteko herri kirol saioa izan zen protagonista nagusia. Jendetza bildu zen zizurkildarren jarduna ikustera eta ondorengo sargardo dastaketara. Gaueko bertso saioetik zizurkildarren gogoan geratuko dira Unai Mendizabalek itxi berri den Pantxikane tabernari eskaintako hiru bertsoak.

Herri kirolak, jubilatuta eta herri kirolarien bazkaria eta idi proben eguna izaten da jaietako azken eguna.

Pokerramon bila, Asteasutik Zizurkilera



Azken urteotan, jaietako amaiera ematen dioten gaueko mozorroek ere indar handia hartu dute. Trakets taldearen doinuekin, umore onean agurtu zituzten jaiak zizurkildarrek.



Uda honetan mundua astindu duen Pokemon Go jokoari keinu eginez, Ixiar eta Arkaitz asteasuarrek "Pokerramon bila" mozorroarekin irabazi zuten lehiaketa. Taldeko mozorroei dagokio-



nez, bi sari nagusi banatu zituzten. Eri-zain eta elbarri paperean ziren Adur, Xabi, Andatz eta Aimar alde batetik. Eta garbitzaile paperean aritu ziren Edorta, Maite eta Lurdes.

Iratxe Geresta eta Maialen Ugalde aurtengo txapelkunak



Maialen Ugalde eta Iratxe Geresta, aurtengo txapelkunak.



Andoni Izagirre eta Maialen Izagirre urnietarrak.



Aurtengo txapelkunak, saioa eskaintzen ari zirenean.

Amabirjin egunaren bezperan, XII. Gazteen trikitixa txapelketan lau bikotek ikuskizun bikaina eskaini zuten. Txapela lortzeko lehia bizi egon zen, batez ere,


Maialen Ugalde-Iratxe Geresta eta Maialen Izagirre-Andoni Izagirreren artean. Txapela, azkenean Villabonako eta Zizurkilgo bikotearentzat izan zen.

XII. GAZTEEN TRIKITIXA TXAPELKETA SAILKAPENA:

1. Maialen Ugalde eta Iratxe Geresta (Villabona-Zizurkil).

2. Maialen eta Andoni Izagirre (Urnieta).
3. Nahia Dorronsoro eta Jon Altuna (Bidania) / Uxue Lasarte eta Eider Lasarte (Berastegi).

Hasiera indartsua, oilasko biltzaileekin



Goiburuko jaiak, auzotarren eta herrikide askoren bilgune abuztuaren hasieran

EGURALDIA LAGUN, GOZATU EDERRA HARTU ZUTEN AUZOTARREK ETA KANPOTIK ETORRITAKOEK SAN ESTEBANGO JAIETAN OSPATU ZIREN EKITALDI GUZTIETAN.



Txertota izan zen oilasko biltzaileen azken pausalekua.



Jon Lopez de Munain eta Xabier eta Mikel Urretabizkaia soinu jotzaileei omenalditxoa eskaini zieten.

Parte hartzeari eusten diote malkar krosean



Malkar krosetako lehen sailkatuak, elkarrekin.



Andoaingo korrikalari ugari erakarri zuen Malkar krosak.

Malkar krosa Abuztuak 6, larunbata

GIZONAK

1	Ibai Alba	0:39:08	Hernani
2	David Garcia	0:40:08	Durango
3	Jon Ugalde	0:40:51	Andoain
4	Jon Iturralde	0:41:00	Andoain
5	Jon Azpiazu	0:41:05	Zumarraga

EMAKUMEAK

1	Lourdes Colomo	0:47:02	Zizurkil
2	Itsasne Galfarsoro	0:54:03	Legazpi

3	Amaia Lacalle	0:55:30	Andoain
4	Ana Rodriguez	0:56:12	Hernani
5	Izaskun Cantabella	0:58:49	Oiartzun

ESKUALDEKO PARTAIDEEN SAILKAPENA:

7	Luis Mari Urizar	0:41:42	Villabona
13	Jaime Real	0:42:29	Andoain
14	Ivan Piñon	0:42:46	Andoain
15	Jon Ramos	0:43:04	Urnieta
17	Antonio Jimenez	0:43:35	Andoain
19	Mikel Eguren	0:43:56	Andoain
20	Ismael Mateo	0:44:13	Andoain

21	Iban Muñoz	0:44:26	Andoain
29	Antonio Tena	0:47:12	Andoain
30	J.Maria Flamarique	0:47:13	Andoain
31	Oier Escudero	0:47:35	Andoain
33	Javi Menta	0:47:57	Andoain
35	Iñaki Blanco	0:48:31	Andoain
39	Imanol Otermin	0:49:22	Aduna
40	Jagoba Arostegi	0:49:47	Andoain
42	Alfredo Rodriguez	0:50:32	Andoain
43	Iñaki Moreno	0:50:39	Billabona
44	Iosu Mikelarena	0:50:51	Andoain
49	Unai Etxeberria	0:53:29	Andoain

50	Ion Rodriguez	0:53:31	Urnieta
51	Iker Mujika	0:54:02	Andoain
53	Ander Lopez	0:54:49	Andoain
54	Patxi Nieto	0:54:50	Andoain
56	Rodolfo Parra	0:55:39	Andoain
58	Sergio Garcia	0:56:00	Andoain
72	Javier Gallo	1:01:54	Andoain
75	Arkaitz Amenabar	1:04:15	Andoain
79	Luis Lopez	1:08:18	Andoain
80	M. Jose Nuñez	1:08:19	Andoain

Partaide guztien argazkiak: www.aiurri.eus

San Esteban vs Kaletxiki desafio zirrargarria



Argazkirako bildu ziren desafioko kirolari guztiak.

Goiburu nagusitu zen San Estebango jaietan jokatu zen desafioan, herri kirol-tan. Bi txandatan lortu du garaipena hortaz, irabazle izan baitzen Kaletxiki-ko jaietan ere. Goiburun bakarrik egi-

ten diren bi modalitateetan (oilasko lumaketa eta artoa aletzea) segundo batzuk irabazi zituen taldeak, eta baliteke horri esker irabazi izana. Mari karmen Txapartegi aritu zen oilaskoa lumatzen,

eta Tere Lopez de Munain eta Mari Zipitria artoa aletzen.

Azken uneraino eutsi zitzaion emozioni, ikuskizun polita eskainiz. Ikusleek txalo zaparrada batekin eskertu zie-

ten egindakoa ahalegina amaieran. Bi urte daramate elkarren aurkako desafioak egiten; irabazi nahiari eusten diote bi auzoetakoek, beti ere adiskidantza giroan.

Adin guztietako lagunak herri afarian



Monologoa



Artisau azoka



Oilasko biltzaileak eguzki bizitan Buruntzan

UDA HONETAN HAINBAT EGUNETAN BERO IKARAGARRIA EGIN DU. ABUZTUAREN HAMAHIRUKOA EGUN HORIETAKOA IZAN ZEN, OILASKO BILTZAILEAK AUZOAN BARRENA IBILI ZIRENEKOA. EZ ZIREN ASKO, BAINA BILDU ZIRENAK GOGOTSU ARITU ZIREN.



Oilasko biltzaileak Zalbide baserriko kideekin.



Larramendi baserriaren aurrean, dantza saio bikaina egin zuten.



Oilasko bilketaren usadioa berritu zuten Buruntza auzoan, aspaldiko ohiturari jarraiki. Bildu zen taldea ez zen oso ugaria, baina bai bizia, eta zintzo demonio biziberritu zuten oilasko biltzailen tradizioa, dantza eta giro ona auzoko baserri guztietara zabalduz. Alderik alde, Ubalategitik hasi eta Garagartzara bitarte. Etxeetako biztanleak oso eskerturik agertu ziren oilasko biltzailen bisitarengatik, eta arretaz zaintzen saiatu ziren. Beroari aurre egiteko dutxa freskoa ere eskaini zieten.



Lasterketa



Virginia Perez gazteiztarra eta Ibai Alba hernaniarra izan ziren irabazleak. Lasterketa latza baina ikusgarria da. Eta jai batzordearen antolaketa, bikaina. Helmugan, opari ugari eskaintzeaz gain, bigarren hamaiketakoa eman zieten Buruntza auzoko behealdean. Badauka zerbait berezia lasterketak, horren adierazle ia ehun korrikalari erakartzen dituela urtero. Nahiz eta jai egun horretan oporretan izan herriko korrikalari gehienak, eta gainera, San Roke ermitarako aldapa pikoak erabat gogorra bihurtu lasterketa. Zailtasunak zailtasun, baina, oso estimatua dute korrikalariak.

San Roke, egun handia Buruntzan



Ikasturtearen hasierako aldapa arinduko duen egitaraua Sorabillan, irailaren 8tik 11ra



Jai batzordeko kideak herrikideak hurbiltzeko gogoz ari dira lanean.



El Ritmo del Desvan, 80ko hamarkadako pop-rock musika gogora ekartzen duen taldea.

Andoaingo azkeneko jaiak izaten dira Sorabillakoak, aurretik beste zazpi auzotan jaietan murgilduta ibili ostean. Datoren egunetan haur, gazte eta helduentzako hainbat ospakizun eskaniko dituzte. Honezkeror andoaindarrek jaiekiko nekea sumatu beharko lukete. Baina ez da horrelakorik gertatzen eta herrikide ugari hurbilduko da Sorabillako auzotarrek prestatzen duten egitarauaz gozatzera. Ohiko ekitaldiez gain, hitzordu berezi gehiago aurki daitezke aurtengo egitarauan. Aiurri.eus webgunean jaiaren jarraipen zehatza egingo da.

Irailak 8, osteguna Koruko Amabiriñaren eguna

- 11:15 Txupinazoa, suziriak eta kanpai errepika.
- 11:30 Meza Martin Deunaren elizan, Alberto Agirre abesbatzarekin. Ondoren, auzokideentzat hamai-ketakoa.
- 19:00 Pintxo-potea.
- 21:00 Auzo afari merienda, bakoitzak berea eramanda.

Irailak 9, ostirala

- 10:00 Mendi irteera, auzoko inguruneak ezagutzuz.
- 18:30 Joxe Mari Iturzaeta memorialeko txapeldunen errebantxa. Emakumeak: Ainarika-Izarne, Olatz eta Rakelen aurka. Gizonezkoak: Loidi-Iñaki, Alvarez-Arrutiren aurka.
- 20:00 Kontzertua, San Martin Deuna elizan.
- 21:00 Zikiro afaria. Ondoren, Los Ruby musika taldearekin dantzaldia.

Irailak 10, larunbata

- 10:00 Herri krosa bikoteka. Binakako lasterketa ez lehiakorra. Bikote bakoitza minutu bateko tartearekin irtengo da. Belkoaingo gurutzerainoko joan etorria. Bikote bakoitzari denbora hartuko zaio, baina ez da sailkapena osatuko. Urtero bezala, zozketa eta hamai-ketakoa amaieran.
- 11:00 Haurren krosa eta jolas herrikoiak.

- 11:30-14:00 Puzgarriak frontoian.
- 17:00 Antzerkia Patata Tropikala taldearekin: "Kondaira baten truke".
- 17:00 Ate ireki jardunaldia, Erretore Etxean.
- 16:00-18:30 Puzgarriak.
- 19:00 Andoaingo batukada feministaren emanaldia.
- 20:00 Sardina jatea.
- 21:00 El Ritmo del Desvan musika taldearen emanaldia. 80ko hamarkadako pop-rock musika biziberritza datoz, iaz egin bezala.

Irailak 11, igandea

- 10:30 Auzoko eskopeteroak txaranga-ren laguntzaz auzoan barrena.
- 11:30 Meza Martin Deuna elizan.
- 12:15 Miguel Angel Perez Lasa futbol epaile ohiari eta auzokideari omenaldia.
- 17:30 Zetreria saioa. Hegazti harrapakariekin erakustaldia.
- 19:00 Sagardo dastaketa kantujirako abeslariaren laguntzaz.
- 22:00 Festa amaiera.



Aurten Miguel Angel Perez Lasa futbol epaile ohiak jasoko du omenaldia.



Joxe Mari Iturzaeta memorialeko txapeldunen errebantxa jokatuko dute ostiral arratsaldean.



Andoaingo batukada feministaren emanaldia larunbat arratsaldean.

Santioak indartsu hasi eta amaitu ziren

DENOK DANENA HALTEROFILIA TALDEKO SUSANA DAVILA PULTSULARIAK JAURTI ZUEN SANTIO FESTETAKO SUZIRIA. UZTAILAREN HOGEITA LAUA IGANDEA EGOKITU ZENEZ, EGUERDIAREKIN BATERA LEHERTU ZEN FESTA VILLABONAN.

Lehen orduetan ez zuen eguraldiak lagundu eta halterofilia taldearen erakustaldia plazan beharrezan kiroldegian egin zen. Pultsulariek euren lana eta saiakera Errebote plazan erakutsi nahi bazuten ere, ez zen horretarako aukerarik izan. Euritan egin zen erraldoi, ipotx eta buruhandien lehen kalejira ere, baina eguraldiak ez zituen festa gosez zeuden herritarrek kikildu. Errebote plazan beharrezan Txermingo ikastola azpian egin zen herri bazkaria. Arratsalderako, eguraldia bezala herri giroa ere berotzen joan zen. Zo-zongo taldearen perkusio hotsek alaitu zituzten herriko kaleak. Era berean, frontenis txapelketako finalak nahiz Behar Zana elkarteak antolatutako bola tiraldiak jende asko erakarri zuten kiroldegi ingurura. Futbito txapelketako finalak ere erruz bete zuen Errebote plaza. Gauean dantzarako nahiz festarako aukerak luze jarraitu zuten.

Dianaren ondoren, Zumbeltz elkarteak antolatutako krosarekin esnatu zen Santio eguna. Haur, gazte nahiz heldu korrika. Helduen sailean, Raul Gomez lasarteak eta Lourdes Colomo zizurkildarrik jantzi zuten txapela. Udalbatzaren desfilearen ondoren, Atari bizi eta egitarauko azalaren lehiaketetako sariak banatu ziren. Balkoi edo ataririk dotoreen irabazleak Edurne Zaldua, Miguel Angel Gonzalez eta Izaskun Irizar herritarrek izan ziren. Azal lehiaketako irabazlea, berriz, Flori Garcia. Urteroko Soka-dantzaren tartea izan zen eguerdian. Herritar ugari gerturatu zen plazara Oinkari dantza taldeak eta Udal korporazioak, herritarrekin batera dantzatu ohi duten tradiziozko saiora. Une hunkigarriak eskaini zituen aurtengo edizioak, Lierni Kamio dantzariak bere aitonari aureskua dantzatu zioneko, horietako bat. Arratsaldeko sokamuturrak jende asko erakarri zuen plazara eta zer esanik



Susana Davila, suziria piztu zuen uanean.

ez gaueko Oinkari dantza taldearen emanaldiak. Saioa hasi aurretik ilara luzea sortu zen Olaederra kiroldegiaren atarian. Ikuskizun dotorea eskaini zuten dantzari nahiz musikariek.

ATSEDENIK EZ, ATSEDEN EGUNERA ARTE

Uztailaren 26a, Santana eguna. Goizeko dianaren ondoren, haur nahiz gazteen-tzako ekitaldiak. Patata tortilla nahiz

Urtez urte indartzen ari da konpartsa, dultzainero nahiz txistularien musika doinuekin eta baita erraldoien dantza saioekin ere

marrakzi lehiaketa. Buruhandi, ipotx eta erraldoien hirugarren kalejira. Jendetsua, aurrekoak eta ondorengoak bezalaxe. Urtez urte indartzen ari da konpartsa, dultzainero nahiz txistularien musika doinuekin eta baita erraldoien dantza saioekin ere. Aurten antzinako Villabonako Erraldoein martxa doinua berreskuratu du Loatzo musika eskolako Jeronimo dultzaina taldeak eta pozgarria izan da herritar askorentzat berriz ere doinu hori kalean entzutea. Arratsaldean Zumbeltz elkarteak urtero antolatu ohi duen txekor jatea, Txermingo ikastola azpian. Goizean hasi ziren bertan txekorra erretzen eta iluntzerako hezurak besterik ez ziren geratzen. Aburuza, Sarasola eta Zabala sagardotegietako sagardoa ere zerbitzatu zen, ekarritako botilla guzti-guztiak agortu arte.

Gazte eta jubilatuei zuzendutako eguna izan zen uztailaren 27a. Toka txapelketa, eskulan eta margoen erakusketa nahiz bazkari eta dantzaldia izan zituzten jubilatuek. Bazkaria eta Orkresta Nazionalarekin poteo-kalejira gazteek. Besteak beste, zunba herrikoa nahiz cycling maratoia izan ziren Txistulari plazan. Haurrentzako bola tiraldia bolatokian. Pilota finalak Bearzana pilotalekuan. Gauean sekulako jende piloia erakarri zuten Izeberg eta Vendetta taldeen kontzertuek.

HERRITARRAK PARTE HARTZAILE

Atsedeen egunaren ostean indartsu iritsi zen uztailaren 29a, koadrilen eguna.



Denok Danena taldeko pultsulariek erakustaldia eskaini zuten.



Gizon eta emakumeen parte hartzea izan zen bolo txapelketan.



Uztailaren 24ko herri bazkarirako koadrila ugaro gerturatu zen Txermingo ikastola azpira.



Eguraldi ona lagun, Etxe Ondoko zelaia kolorez jantzi zen beste behin. 104 koadrila guztira, ia 1500 pertsona. Giro ederra nagusitu zen bazkarian, baita arratsaldeko txarangaren jaitsieran nahiz ondoren ere.

Eta ekintzaz beteta etorri zen bihar-muna ere. Berrikuntza gisa, Santiotan kantari ekimena kaleratu zen lehenengoz. Musikarien laguntzarekin 150 lagun pasatxo euskal kantuak abesten aritu ziren. Bazkariaren ondoren emanaldia eskaini zuten plazan, Oinkari dantza taldeak antolatzen duen Erromeria festarekin uztartuz.

Uztailaren 31, San Inazo eguna, festetako azken eguna. Diana eta haurrentzako ur parkearekin aurrera egin bazen ere, goizaldera botatako zaparrek bertan behera utzi arazi zuten Villabona-Hazparne 87. Errebote partida.

Musikarien laguntzarekin 150 lagun pasatxo euskal kantuak abesten aritu ziren jaietan

Eguerdirako eguraldia altxatu eta erantzun bikainez gauzatu zen Villabonako eta Donostiako Irrintzi konpartzako erraldoi, ipotx eta buruhandien kalejira. Iluntzean Rockalean rock&roll emanaldi ibiltaria. Emanaldi pizgarri eta alaia. Azken egunerako baino, agian lehenengorako egokiagoa. Herritarrek festetan zehar ateratako argazkien proiektioarekin amaitu ziren festak.

SALAKETA

Festak amaituta, lasaitasuna. Bazirudien aste osoa giro onean eta oztoporik

gabe igaro zela. Abuztuaren 8an, ordea, neska gazteren bati edarian drogaren

bat bota ziotela salatu zuen Tolosaldeko koordinadora feministak.

REMI AYESTARAN GOGOAN

Jai egitarauaren barruan edo kanpoan izan, urtez urte jende andana erakartzen du Remi Ayestaran herritarren alde antolatutako omenaldiak. Aurten zazpigarren urtez, lepo bete zen 2009ko uztailaren 31ko gertaeren ondoren, Remi Ayestaranen izena hartu zuen pasealekua, Remi gogoratu eta haren senideei babesa erakusteko. Zazpi urte geroago, gertaerak gogoratu eta omenaldira gerturatzean, zaila da oraindik ere malkoei eustea. Ekitaldi hungigarria antolatu zuen aurten ere Remi gogoan ekimenak. Aurtengo festetan kaleratu ez bada ere, Remik danborrada berreskuratzen egindako lanari keinu egin, koadrila ezberdinetako kideek jotako bi piezekin hasi zen omenaldia eta musika, dantza nahiz kantua izan zituen oinarri. Unai Urreaga laguna aritu zen aurkezle eta Mikel anaiak hartu zuen hitza bukaeran. Herritarren artean osatutako ekitaldia izan zen, ohi denez. Antolatzailerek ezezko gubxi jasotzen dute parte hartzeko gonbidapena luzatzen dietenen artean. Dударik gabe, arrastoa utzi baitzuen pertsona hark Villabona eta inguruetan eta herritar asko eta askok ez baitute inolaz ere ahaztu. Ideologia eta iritzi guztien gainetik, bihotz handiko pertsona zen Remi; gertuko, entzuten zekiena, arazoei irtenbideak bilatzen saiatzen zena. Langilea zen, atsegina, umoretsua, patxaroso. Jendearekiko hartu-emanetarako dohain berezia zuen eta borondate onenez egin zuen herrigintzan lan. Dударik gabe, merezi luke errekonozimendua; merezi luke bihotz handi hura gaiztotutako giroa baretzen saiatzen ari zela lehertu zitzaiola aitortzea. Justua litzateke beretzat eta bere ingurukoentzat.

Ainhoa Arozena



Oinkari dantza taldeko dantzariak eta Udalbatza soka-dantzan.



Lierni Kamiok aitonari dantza zion aureskua.



Erromeria festan, jo eta su dantzan.



Irrintzi elkarteko kideak sagardoa zerbitzatzen.

Musika kalejira ibiltari erraldoia



Koadrilen eguna



Santiotako irudi gogoangarri gehiago

LEHIAKETA, KALEJIRA, KANTA SAIO, LASTERKETA,... GUSTU ETA ADIN GUZTIETARAKO HITZORDUAK BILTZEN DIRA ASTE OSOKO JAI EGITARAUAN.



Udalbatzaren desfilea, txistulariekin batera.



Santiotan kantari ekimeneko kideak kantuan.



Erraldoi, buruhandi eta ipotxen konpartsa.



Iñaki Zalakain kantuan, Remi Ayestaranen omenaldian.



ATARI BIZI LEHIAKETAKO IRABAZLEAK

Edurne Zalduak irabazi zuen Atari Bizi lehiaketa. Hona banatutako hiru sari-dunen izenak.

Sarituak:

1. Edurne Zaldua:

Itzalpe jatetxean afaria + 100 euro Villabonako Oria Merkatalguneko dendetan gastatzeko.

2. Miguel Angel Gonzalez:

100 euro Villabonako Oria Merkatalguneko dendetan gastatzeko.

3. Izaskun Irizar:

85 euro Villabonako Oria Merkatalguneko dendetan gastatzeko.



Flori Garcia, jaiak iragartzeko azal lehiaketako irabazlea.



HERRI KROSA

Mutilak:

1. Raul Gomez (Lasarte-Oria) 24:49
2. Joseba Jauregi (Tolosa) 25:27
3. Patxi Urizar (Villabona) 25:31

Neskak:

1. Lourdes Colomo (Zizurkil) 29:29
2. Alazne Irureta (Aizarnazabal) 31:13
3. Leire Lizarralde (Villabona) 31:26

Benjamiñak izan ziren lehenak herri krosean parte hartzen. Ondoren, infantil eta kadeteek 2,5 kilometroko ibilbidea egin zuten; eta jubenilek 5koa. Azkenik helduek eman zioten amaiera 7,5 kilometroko ibilbidea eginez.



Ospakizun bikoitza Larraulen

ABUZTUAREN HASIERAKO SAN ESTEBAN JAIK ATZEAN UTZITA, ABUZTUAREN HOGEITA LAUAN SAN BARTOLOME EGUNA OSPATU ZUTEN LARRAULEN.

Abuztuaren 24an, herritarrek itzaletan eserita, hamaiketako egin zuten. Herritarren arteko pala norgehiagoka mistoarekin eta Laja eta Landakanda trikitilarien emanaldiarekin osatu zen tradizio handiko ospakizuna.

Aste batzuk lehenago, San Esteban jaiak osatu zituzten herrian. Pello Joxeperen jaitsierarekin eta txaranga herrikoiarekin eman zioten festari hasiera. Bertsoak edota herritarren arteko kirol lehiak izan dira aurtengo ospakizunetako hitzordu nabarmenenak. Herri kirol lehian, esaterako, gazte eta helduak oso berdinduta ibili ziren. Harriari hiru minutuan zein taldek buelta gehiago eman beharreko proban nagusitu ziren gazteenak.



San Bartolome eguneko ospakizunak



Eguzkipean igaro ziren hitzordu gehienak

JAIEN HASIERA ABUZTUKO LEHEN ASTEBURUAN IZAN BAZEN ERE, OSPAKIZUN GEHIENAK ANDRAMARI EGUNAREN INGURUAN EGIN ZITUZTEN ADUNAN.




Trans Ernio txapelketako kideak eskuz eta palaz aritu ziren.



Helduen krosa egiten den bezalaxe, hurrek ere gogo biziz parte hartzen dute herri barruko ibilbidean.



Suziria Jone Olasagastik piztu zuen.



Trans Ernio txapelketako kideak, antolatzaileak eta Udal ordezkariak.

Herri Krosa. Abuztuak 7, igandea

Gizonezkoak

1	Raul Gomez	Lasarte	14.38
2	Jon Garate	Elgoibar	14.50
3	Aritz Garin	Villabona	15.04

Emakumezkoak

1	Karen Ortiz	Hernani	18:09
2	Olatz Odriozola	Andoain	18.32
3	Tania Arriaran	Hendaia	20:22

Eskualdekoen sailkapena:

15	Imanol Otermin	Aduna	18.40
17	Aitor Zabala	Aduna	19.30
21	Rodolfo Parra	Andoain	19.56
26	Juan Luis Hurtado	Andoain	21.14
37	Iñaki Arregi	Andoain	24.35



Haur, gazte eta helduak bildu ziren herri bazkarian.



Mahaiaren bueltan herrikide ugari biltzen da koadrila egunean.



Dantzari txikiak eta Axeri dantzako kideak elkarrekin, saloaren amaleran.

Karrika eta Etxeberrieta, udako lehenak



Auzoko gazte ugariaren inplikazioari esker egiten dira jaiak Karrikan.



Tradizio handiko danborrada mistoa ospatzen da Karrikan.



Haurrek ere ikuskizun txukunak prestatzen dituzte playbackari begira.



Jesus Manuel Lucero eta Ana Gaspar.



Silvia Arevalo, klasikoa play back saioan.



Geroz eta parte hartzaile gehiago ditu gaztetxoek krosak, Etxeberrietako jaietan.



Cabrejas memorialeko korrikalari bizkorrenak bilduta, oholztan.



Gipuzkoan futboleko aitzindari izan ziren emakumeak omendu zituzten Etxeberrietan.



Etxeberrietako jaiak ondo aterata daitezke lanean aritzen diren zenbait auzotar.

Jokin Lizeaga Mitxelena, Urnietar Prestu 2016

Iñistorra Biltzarra

Uztailaren 13an hartu zuen erabakia **Iñistorra Euskaltzaleen Biltzarra**. Aurtengo Urnietar prestua **Jokin Lizeaga Mitxelena** izango da, kirolari korrikalaria eta irakaslea, mendi lasterketetan urte gutxiren buruan ibilbide bikain bezain harrigarria lortu duena Euskal Herrian eta nazioarte mailan. Egun, mendi lasterketaren esparruan gutxi dira munduan urnietarren maila ematen dutenak. Oso ezaguna da herrian baita ere, Zanpatuz izeneko mendi elkartearen sortzaile eta eragile nagusia delako, elkarre horri esker hainbat dira urnietar gazte eta helduak Euskal Herriko eta atzerrietako mendiak ezagutu eta izadiarekiko harremana egin ahal izan dutenak.

Urnietan jaio zen, 1979. urtean, Martin Lizeaga eta Maritxu Mitxelena-rena. Oinarrizko ikasketak egiteko Azkorteako eskolatan ibili ondoren, batxilergoa Hernaniko Agustín Iturriga institutuan burutu zuen eta ondoren Gasteizko SHEE/VEF-en heziketa fisikoan lizentziatu zen 2002. urtean. Gaur egun, heziketa fisikoko irakasle gisa dihardu Lekarozko institutuan (Nafarroa).

Kirolari gisa ez zen, ordea, mendi korrikalari hasi, txirridulari bezala baizik, 20 urte zituela Cafés Aitona taldean hasi baitzen eta bertan jardun zuen laupabost urtez. Ikasketak amaituko bazituen, baina, ezin zuen txirridularitzak eskatzen zion denboraren menpe egon eta, jarraitu ezinik, utzi egin zuen. Mendia oso gustoko zuen eta Mikel Legarreta adiskide urnietarra mendi lasterketa batean ikusi izanaren eraginez erabaki zuen berak ere kirol jardun horretan hastea. 2007. urtean zen. Geroztik, bere ibilbidea ikusgarria izan da.

Huescan oporretan zela, Selva de Ozan egiten den Boca del Infierno lasterketan parte hartzea erabaki zuen eta ezustean bigarren sailkatu zen. Saikape horrek, mendi lasterketak izadiarekin duen harreman zuzenak eta ahalgin handia eskaini beharreko kirola izateak adorea eman zioten jarraitzeko eta azken bederatzi urteetan bere aurrerabidea ikusgarria izan da: ehundik gora probatan parte hartu du eta jada 2008. urtean, urtebete zeramala, Euskal Selektzioak deitu egin zuen Munduko txapelketan parte hartzeko. Geroztik beste bost aldiz deitu dute. Horrek bospasei lasterketa puntuagarritan parte hartzea behartzen zuen eta, horrela, lau urtetan mundu mailako saikape peneko lehenengo 8 korrikalarien artean sailkatu da urnietarra.

Irabazi dituen lasterketen artean hiru nabarmenduko ditugu orain: 2009an Italiako Chaverton mendi maratokia (Dolomitetan) eta 2011n, Andorran Montcalm-eko mendi maratokia. Baita, Andorran egindako Els 2900 izeneko 70 kilometroko mendi maratokia, 14 ordu eta 45 minututan irabazi zuena. Datu ikusgarriak kirol horren gogortasuna aintzat izanik. Etxera etorrita, Zegamako



Jokin Lizeaga urnietarra.

mendi maratoi ospetsuan bospasei aldiz parte hartu du eta sailkatu lehenengo euskalduna izan da azken urteetan. Adarramendiko lasterketa hiru urte egin du eta bitan irabazi. Emaizta deigarri bezain bikainak bederatzi urteko jardunean, nolani ere, maiz bere buruari galdera eginarazten diotenak pena merezi ote duen kirolari etekina ateratzeko hainbeste denbora eskaini behar izatea. Garbi du Lizeagak izadiarekiko lotura horrek erakartzen duela gehien mendi lasterketan, gaztetandik bizi izan duena.

Alaba eta seme baten aita, hirugarrenaren zain daude orain Jokin eta Ainhoa emaztea. Hain zuzen ere, izadia eta mendi ingurunea belaunaldi berriei ezagutzera emateko aukera ematearren Zanpatuz elkartea sortu zuen Jokin. Urnietan, azken urteetan gazte zein helduentzako mendi ibilaldi eta txangoak antolatzen diharduena. Izadiarekiko eta mendiarekiko zaletasuna exetetik datorri Jokin, baina baita beregan eragin handia izan zuen Iñaki Arantza di zenarengandik, orain ia urtebete hil zen Urnietako erretoreak mendi irteera eta txangoak antolatu baitzituen garai batean herriko gazteentzat eta Jokin oso gogoan ditu Pirineotara Iñakirekin batera egindakoak.

Beraz, laburtuz, epaimahaiak aintzat hartuz izan dituen merezimenduak:

- Mendi lasterketen kirol jardunean, ahalmen eta gaitasun apartekoak eskatzen dituen horretan, oso urte gutxiren buruan, zehazki bederatzi urtetan, egindako ibilbide bikain bezain arrakastatsua, garaipenez eta lehen mailako lorpenez jositakoa, guztiz eredu garria gertatzen delako kirolari eta kirolzale ororentzat eta, baita ere, kirol horren gogortasuna ezagutzen duten guztientzat.
- Mendi lasterketetan korrikalari gisa egin duen ibilbide horrek mundu mailako eredu eta erreferentzi bihurtu delako Lizeaga urnietarra.
- Bere kirolari ibilbidea lehia hutsetik areago izadiarekiko eta naturarekiko ahalegin eta begirune harreman batean oinarritu delako, izadia begirunez zaindu beharra aldarrikatuz.
- Izadiarekiko ezagutza eta begirunean belaunaldi gazteak izadiaren aberastasunera hurbiltzearen Zanpatuz elkartea Urnietan sortu eta beste herritar batzuekin batera eragin izan nagatik.

Abesbatzak eta txarangak emanaldia eskaini zuten Errioxan

Andoaingo eta Sorzano herriak, musikak baturik



Sorzanoko elizan emanaldia eskaini zuten. Logroñetik kilometro gutxira dago, bertako jatorria dute eskualdeko hainbatek.

Andoain eta Errioxako Sorzano herriek harremanak estutu dituzte joan den udan, musikak eta musikarekiko maitasunak bitarteko. Hain zuzen, Sorzano izenburuko ereserkia sortu du **Joxe Mari Oiztabalek**, eta **Gora Kaletxiki** txarangak eta Hernaniko **Ozenki** abesbatzak herrian bertan estrainatu zuten abuztuaren 14an egin zuten ekitaldi jendetsuan.

Txarangako kide **Joxe Ramon Berrondok** azaldu du nondik datorren lotura hori: "Herri txikia da Sorzano, apenas 200 biztanle dituena; Logroño hiriaburutik 17 kilometrora dago. Buntzaraldeko herrietan bizi dira hain jaiotako zenbait pertsona. Jende jantzia da, Amigos de Sorzano izeneko kultur elkartea sortua daukate eta lan handia egiten ari dira beren jaioterria biziberritzeko asmoz. Iaz txaranga gonbidatu zuten; animatu egin ginen joatera, eta egia esanda, herriak harrera ezin beroagoa eskaini zigun. Egundoko konplizitate sortu zen haien eta gure artean".

Handik gutxira, kultur elkartea txarangarekin harremanetan jarri zen berriro, proposamen zehatza egin: konposatu zezala ereserki bat, herrian belaunaldiz belaunaldi igaro den letra jakin bat erantsita. Berehala heldu zioten erronkari andoaindarrek, eta Joxe Mari Oiztabalek sortu zuen doinua ereserkiarentzat, Errioxako jotaz bustita. Sorzanoko egonaldiko oroitzapenak inspirazio iturri izan zituen Oiztabalek.

Ereserkia Hernaniko musika



Oiztabal zuzendariak herritarrek danborra jotzen jarri zituen.

Ozenki abesbatzak eta Gora Kaletxiki txarangak kontzertua eskaini zuten abuztuaren 14an

bandak eta Ozenki abesbatzak abenduaren 19an estreinatu zuten, Hernanin bertan.

Pauso bat gehiago emanez, Ozenki abesbatzak eta Gora Kaletxiki txarangak Sorzanon bertan kontzertua ematera animatu dira aurtengo udan; abuztuaren 14an izan zen ekitaldia. Berebiziko jaialdia ospatu zuten, Berrondok adierazi duenez. "Ahaztu ezin diren egun horietakoa bizitu genuen. Kontzertua eskaini genuen elizan lehenbizi, honako errepertorioarekin: *Andoain* (Luis Fraca), *Gora Kaletxiki* (J.M. Oiztabal), *Lau teilatu* (Itoitz), *A tu lado* (Javier Busto), *El barbero de Sevilla* (Rossini) eta Sorzanoko ereserkia.

Imanol Kamiok eta **Joxe Mari Oiztabalek** zuzendu zuten kontzertua. Eta ondoren, 700 pertsonentzako bazkarian parte hartu genuen. Zoragarria izan zen eguna".

Kontzertuaren grabazioa, Sorzano ereserkia barne, irailaren amaieratik aurrera ikusi ahal izango da Youtuben, Imanol Kamio edo Ozenki abesbatzaren eskutik.

SANTA ZEZILIARAKO KONTZERTUA PRESTATZEN

Bi herriek eta bertako herritarrek ez ezik, azken urteetan Ozenki abesbatzak eta Gora Kaletxiki txarangak ere harremanak estutu dituzte. Horren erakusgarri izango da aurtengo Santa Zeziliako ospakizunen inguruan Andoain eskainiko duten kontzertua. Tokia eta eguna oraindik finkatu gabe daukaten arren, egitasmoa nahiko aurreratuta daukate dagoeneko.



KIROL ALBISTEAK

Denboraldi berrian ere Realeko ikur izateko asmoz

Emakumezkoen lehen mailako taldeek asteburu honetan ekingo diote denboraldi berriari. Realaren ikurretako bat Nahikari Garcia urnietarra izango da. Erreferentzia bilakatzen ari da futboleant. Udan 19 urtez azpiko Europako txapelketan finaleraino iritsi ziren. Urnietarraren esku egon zen gola, baina oraingoan ez zen sarean sartu.



Nahikari Garcia.

Gaztea da oraindik eta aukera berriak izango ditu. Esaterako, hastear den ligan. Aukera polita izango du bere estatistikak are gehiago hobetzeko. 63 partidatan 31 gol sartu ditu, horietatik 16 aurreko denboraldian. Lehen jardunaldia etxetik kanpo jokatu dute, Levante UD-ren etxean. Debuta etxean Granadillaren aurka egingo dute, hilaren 11n.

Ibilbide berria abiatu du Bilbao Athletic taldean

Iker Hernandez urnietarrak Realaren harrobian eta Barakaldon 2.B mailan jokatu ondoren, Lezaman jarraituko du bere ibilbide profesionala. Cucco Zigandaren esanetara hasi du denboraldi berria eta liga aurreko partidatan minutuak pilotzen ari zenean, abuztuaren hasieran lepauztaietan lesioa izan du. Asturiar lurretan egin zuten udako egonaldian lesionatu zen, adiskidantzazko par-



Iker Hernandez.

tidan. Gauzak horrela, denboraldia zelaitik kanpo hasi behar izan du.

22 urterekin ikasten jarraitu eta tokia hartu nahi du futbol zelaiaren area txikian. 2.B mailan izanagatik ere, lehen maila ere gertuago dauka Athleticeko lehen taldeko ateak hortxe dauzkalako. Aurreko denboraldian ligan 33 partida jokatu zituen. Hilaren 11n Barakaldoren aurka jokatu dute.

Bigarren mailan arituko da eskubaloian, Tolosarekin

Tolosa C.F. Eskubaloia taldea estatu mailako bigarren mailan arituko da denboraldi berrian, eta debuta datorren asteburuan Barcelona B taldearen aurka egingo dute etxean bertan. Bigarren mailara igotzeko balentria izan zuen jokalarietako bat Aitor Iburguren andoaindarra izan zen. Aurten, beraz, elitean aritzeko aukera izango du.



Aitor Iburguren atezaina da.

Maiatzaren amaierako azken partidak emozio handikoak izan ziren, eta azken partida galdu arren, igoera lortu zuten. Afizioak ere garrantzia handia izan zuen, harmailak jendez beterik izan baitziren.

Irun, Donostia, Zarautz, Usurbil, Tolosa... Gipuzkoan elite mailako saskibaloia ikusteko aukera izango da.

Amonarriz txirrindularia

Andoaingo Txirrindulari Eskolak jubentail mailako txirrindulari bakarra dauka aurtengo denboraldian, eta nabarmentzeko denboraldia egiten ari

da. Udan Iruñeako itzulian AMPO taldearekin oso ondo aritu zen, 17. postuan sailkatuz. Abuztuaren 19tik 21era Rivera del Duero itzulian Ciu-

dad de Oviedo taldearekin lehiatu zen eta azken etapako mendateetan gailendu zenez, mendiko sailkapenaren mailo-ta eskuratu zuen.

Larramendi txapelketa, denboraldiaren atariko

LARRAMENDI TXAPELKETA
Antolatzaile: Euskalduna.
Zelaia: Ubitarte, Andoain.
Irailak 3, larunbata:
16:30 Eas 08-Trintxerpe.
18:30 Euskalduna-S.Tomas
Irailak 10, larunbata:
16:30 3-4. postuak.
18:30 Finala.

ERREGIONAL MAILA
Liga hasiera irailaren 18an
Urnieta-Mariño
Trintxerpe-Euskalduna

Horiek izango dira lehen jardunaldiko partidak. Ligan aurkariaren artean izango dira Hernani edota Astigarraga ere.

Plazaolako maratoia, datorren irailaren 11n

Naturbidean barrena mendi lasterketa antolatu dute, Plazaola Partzuego Turistikoa eta Andoaingo Udalaren es-

kutik. Bata luzea izango da: Lekunberri-Andoain (maratoia, 42 km.). Motza, bestea: Leitza-Andoain (26 km).

Igerileku irekia irailaren 11ra bitarte zabalik

Urnietako Udal igerilekuaz gozatzeko azken egunak dira, irailaren 11 bitarte zabalik izango baita. Udako hainbat egunetan, sargori izan denean bereziki, Urnietako

eta inguruko herrietako erabiltzaileek erabili dute.

Urnietako igerilekua
irailaren 11ra bitarte
10:00-20:30.

Allurraldeko igerilekua zabaltzear da, berrituta

Udan garrantzia handiko berrikuntza lanei ekin eta gero, Allurraldeko arduradunek irailaren 12rako igerilekua eta bi aldagela zabaltzeko prest edukitzea espero dute.

Eta urrian zehar beste bi aldagela gehiago prest eduki nahi dituzte. Igerilekua zabalik dagoela, beraz, bukatuko dituzte aldagela berriak jartzeko lanak.

Kirol ikastaroetan izena emateko epea zabalik

Irailaren 8an amaituko da Allurralde kiroldegiko ikastaroetan izena emateko epea. Jarduera ugari daude aukeran, eta aurten ohiko jardueraz gain Kross training eskaintzeko moduan izango di-

ra. Fitness jarduera bat da, forma fisikoa azkar hartzen laguntzen duena. Ikastaroen behin betiko zerrendak irailaren 15ean emango dituzte adituzera. Ikasturtea urriaren 1ean hasiko da.

Eskubaloia, senior maila

Urnieta Balerdi Harategia
Yesan prestaketa lanetan arituko dira hurrengo asteburuan, eta taldearen aurkezpena hilaren 17an egingo dute.

Leizaran eskubaloia taldea
Irailaren 11n adiskidantzazko partidak jokatu dituzte senior eta jubentail mailako mutilek, Eibarren aurka.

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.

Aiurri
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

Manuel Larreamendi
Kultur Buzina

INISTORRI

TOKIKOM

Ekoizlea:

ERROITZ
BALTZU MUGATUA

Laguntzaileak:

Eusko Jaurlaritza

Gipuzkoako Foru Aldundia

Aldizkari honek
bi udalerrri hauen
dirulaguntza jasotzen du:

ANDOAINGO UDALA

Unibertsitatea

Argitaratzailea:

ERROITZ
BALTZU MUGATUA

Aiurri eskuragarri:

Etxez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 35 eurokoa da. Urnietan, 30 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
@: andoain@aiurri.eus
Webgunea: www.aiurri.eus

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda.
andoain@aiurri.eus
Erredaktoreak:
Xabier Lasa, Joxeba Lizeaga, Izarne Olano eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trubuelo eta Jon Ander Ubeda.
diseinua@aiurri.eus
Publizitatea:
Fernanda Irazu.
publizitatea@aiurri.eus

Zorion agurrak, merkatu txikia:

diseinua@aiurri.eus
www.aiurri.eus
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.

Kudeatzailea, banaketa arduraduna:

Garbiñe Ugartemendia.
idazkaritza@aiurri.eus
Tel.: 943 300 732

Banatzaleak:

Mikel Arregi (Andoain), Garazi Usandizaga (Urnietan).
Inprimategia:
Zeroa Multimedia. Huarte-Iruñea.

Agenda

IRAILAREN 1ETIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.eus

Ordutegiak

Andoain

- **Liburutegia** eta fonoteka da-goeneko ohiko ordutegian zabaltzen dira.
- **Hiribus** zerbitzua irailean berriro martxan dago.
- **Leitzaran bisitarien etxea** udan egunero zabalik. 10:30-18:30. Irailak 11 bitarte.

Sanmielak

Urnietan

- Irailaren 28an hasi eta urriaren 2ra arte, jaiak Urnietan.
- Irailak 28, asteazkena: Txupinazoa.
- Irailak 29, osteguna: San Miguel eguna.
- Irailak 30, ostirala: Haurren eguna.
- Urriak 1, larunbata: Koadrilen eguna.
- Urriak 2, igandea: Inistor jai, Mielaren agurra.

Pailazoak

Hernani, Atsegindegi

- "Pirritx, Porrotx eta Mari-motots". Irailak 3, larunbata. 18:00.
- **Usurbil**
- "Bizipozaren jai" Usurbilen ospatuko da, aurten. Irailak 25, igandea.

Jaiak

Andoain, Sorabilla

- **Irailak 8, osteguna**
11:15 Txupinazoa, suziriak eta kanpai errepika.
11:30 Meza Martin Deunaren elizan, Alberto Agirre Abesbatzarekin. Ondoren hamaketakoa.
19:00 Pintxo-potea.
21:00 Auzo afari merienda.
- Egitarau osoa, erdiko gehigarri berezian.

Igerilekua

Urnietan

- Ordutegia: 10:00-20:30. Irailaren 11 bitarte zabalik.

Kantujira

Urnietan

- Kalez kale, kantu kalejira Egape ikastolaren 50. urteurrenaren baitan. Iraila 17, larunbata. 12:00.

Ospakizuna

Urnietan

- **Inistor jai**, euskaltzaleen ospakizuna Urnietako jailetan. Aurtengo omendua, Jokin Lizeaga. Egun osoko ospakizunak, tartean herri bazkaria. Bazkarirako txartelak, laster salgai. Urriak 2, igandea.

Antzerkia

Urnietan, Kiroldegia

- **Gabon Txirrita** emanaldia. Donostiakoak agortuta, Urnietakoak oso azkar saltzen ari dira. Sarrerak salgai: Sarobe. 22:00 5 euro. Irailak 23, ostirala.

Ikuskizuna

Urnietan, Kiroldegia

- **400 istorio** musika eta dantza ikuskizuna, Urnietaren historian oinarrituriko ikuskizuna. 20:00 Kiroldegia. Irailak 24, larunbata.

Bertsoak

Urnietan, Oianume

- Miela batzordeak antolatuta, bertso musikatua **Oskar Estanga** eta **Oihana Iguaranen** eskutik. 21:30 Oianume. Irailak 24, larunbata.

Farmaziak

Eskualdea

- Andoain: **Gorospe**. Rikardo Arregi, 12. Urnietan: **Gomez**. Nagusia, 14. Hernani.
- Gauez: **Urrutia**, Hernani. Etxeberrri, 1. Florida. Irailak 3, 4.

ZORION AGURRAK

ZORIONAK



Odei gure printzeak 6 urte bete zituen abuztuaren 28an. Zorionak maitia, ondo pasa. Maite zaitugu ama eta loritz. **ANDOAIN**

ZORIONAK



Ioritzek irailaren 8an 11 urte beteko ditu. Ondo ondo pasa eta asko disfrutau. Maite zaitugu ama, aita eta Odei. **ANDOAIN**

ZORIONAK



Aiara Aizpurua Otañok 5 urte bete zituen uztailaren 30ean. Muxu handia, etxekoak. Aitatxo, amatxo eta Aimar. **ANDOAIN**

ZORIONAK



Abuztuaren 17an gure **Izaro** txikiak lehen urtetoxa bete zuen. Zorionak familiaren partetik. Muxu pottolo bat. **ANDOAIN**

ZORIONAK



Nere lehenengo urtea bete zuen uztailaren 10ean. Azkarari zara hazten! Muxuak, etxekoak. **ANDOAIN**

ZORIONAK



Aiora etxeko printzesak 5 urte bete ditu. Segi hain handi eta polita. Maite zaitugu. Etxekoak. **ANDOAIN**

ZORIONAK



Abuztuaren 14an, **Haizek** 13 urte bete zituen. Zorionak etxekoan partetik! **ANDOAIN**

ZORIONAK



Abuztuaren 17an **Danelek** 5 urte bete zituen. Muxu potoloa Oier, aitatxo eta amatxoren partetik. **ANDOAIN**



ZORION AGURRAK

Erraza da, eta dohainik.

diseinua@aiurri.eus | aiurri.eus | 619 163 537

Aiurriko posta elektronikoak

Aldaketa

Webguneak eta posta elektroniko ezberdinek .eus domeinua dute, beraz, email bidetzeko komunikazioa lantzeko garaian kontuan hartu beharrekoa da.

Emailak:

Andoain:
andoain@aiurri.eus
Urnietan:
urnieta@aiurri.eus
Zorion-agurrak:
diseinua@aiurri.eus

Ikastaroak Andoainen

Udal ikastaroak

Pintura eta marrazketa, arte aplikatuak eta egur taila lantzeko ikasturtea urriaren 3an abiatuko da. Izen ematea egun hauetan egin behar da. Izen ematea:

- Irailak 13-15 iazko ikasleak.
- Irailak 19-23 lehen aldiz matrikulatuko direnentzat.
- Informazio gehiago: 943 30 35 40.

Zuena

Zuena emakumeen taldeak ikastaro eskaintza zabala lantzen du: yoga, pilates, tai chi, makilajea, sendabelarrak, arropa konpontzeko ikastaroak, josten ikasteko ikastaroa, eskulanak, musika...

- Irailak 19-25 matrikula egiteko epea.
- Ordutegia: 17:00-19:00.
- Informazio gehiago: 606 929 697.



Gipuzkoako Foru Aldundia
Euskara Zuzendaritza



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA